Erref. kodea: LAF-107-861

Izenburua: Gutuneria: GARMENDIA, Salbador. [Ikus gainera: 102-298 eta 103-338

EUSKALTZAINDIA
Delegación de Guipúzcoa
ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

A,7.

, 1972ko Urriak 2

Agur jauna:

Orain arteko zure lan guztiak estimu haunditan ditugu. Eskerrik asko. Hain zuzen, estimu haunditan ditugulako gara egun ere zuregana zuzentzen. Listen lana, poliki-poliki bederen aurrera doa. Laster dukezu horietako bat zure eskuetan, itzulpena egin eta bial dizaiguzun. Baina egun beste lantxo bat bidaltzen dizugu. Xabier Kintana jaunak eginik duen denden eta honelakoen izendegia. Gure herrietako karrikek eta bestek euskaldun itxura haundiagoa ukan dezaten, komeni da. Horretarako behar ditugu erdal hitz guzti hoiek euskaraz eman. Kintana jaunak lan ederra egin digu. Erabat ederra ote den zuk esan behar diguzu. Beraz, izendegi hori Euskaltzaindiari erakutsi aitzin, izendegi honi egiten ahal dizkiozun orraztapen guztiak bildu nahiko genituzke. Zure ustez zuzen dagoena,dagoen dagoenean utz ezazu, eta zure ustez hobetu ditezkeenak, zure oharrez lagun gaitzazu hobe ditzagun.

Lehen bai lehen egitea komeni da. Hilabete baten buruan zure orrazpen hoiek hartzerik izango ote dugu? Saia zaitez, otoi!

Eskerrik beroenak aldez aurretik bidaliaz, bihotzez agurtzen zaitu.

Salbador Garmendia